



ANJEL LERTXUNDIRENTZAT BETERRIKO SARIA

'Zoaz infernura, laztana' eleberriarengatik jaso du bigarrenez saria oriotarrak; Zizurkilen egin zuten sari banaketa » 5

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Larunbata
2009-05-09

VIIURTEA 1.697.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ion Garmendia, Kepa Calvo eta Iñaki Plaza, diskoaren aurkezpenean. R. CALVO

Euskal folklореarekin jolas eginez lortutako emaitza

IBARRA Ion Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plaza bilbotarrak 20 Hatz proiektuarekin pauso berria eman dute, '20 Hatz proiekt' diskoa



Atzo egin zuten Txapin Festaren aurkezpena. E. EZEIZA

Txapin Festa «gazte sentitzen den ororentzat»

TOLOSA Datorren larunbatean, hilaren 16an izango da: poteoa, bazkaria, kontzertuak... 4

Grebarekin bat egiteko deia egin dute sindikatuek

TOLOSALDEA ELAk eta LABek «langileen eskubideak babestea» dela helburua diote 3

Ekitate gabezia landu dute ikasleek
Agenda 21aren barruan 2

Ekitaldi ugari Berrobiko eta Leitzako Kultur Asteetan

KULTURA Berrobin datorren astean, eta Leitzan hurrengoan hasiko da 6/7

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulok



ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es

INFORMAZIOA 943 310 873

Heriz Pasealekua 95 • 40008 Donostia • Ostuakoa • Faxa 943 310 878

Loatzo **MATRIKULAZIOA**
musika eskola **09-10**
IKASTURTEA

Gaur bihar eta atzo, musikaren bidean LOATZO

Epea: maiatzak 11tik 15era

Non matrikulatu: (goizez, 10:00etatik-12:00etara)

ADUNA: Maiatzak 14-15
UDALETXEAN

ALEGIA: Maiatzak 11-12
KULTUR ETXEAN

ALTZO: Maiatzak 14-15
UDALETXEAN

ANOETA: Maiatzak 11-12-13
IKASTOLAN

IBARRA: Maiatzak 11-12-13
MUSIKA ESKOLAN

IRURA: Maiatzak 13-14
KULTUR GUNEAN

VILLABONA: Maiatzak 11-15
MUSIKA ESKOLAN

ZIZURKIL: Maiatzak 11-12-13
ATXULONDON

ESKAINNTZA ZABALA:

musika tailerra, tresnak, hizkuntza, tresnak, taldeak...

Informazio gehiago: 943 692619



Herenegun goizean Berrobi eta Tolosako gaztetxoek beraien azterketaren emaitzak aurkeztu zizkieten herri bakoitzeko udal ordezkari. ESTI EZEIZA / HITZA

Kontsumoa eta berdintasuna izan dituzte aztergai, eskualdeko ikasleek

Hezkuntza » Eskolako Agenda 21 programaren baitan ekitate gabezia gaia landu dute Tolosa, Berrobi eta Irurako gaztetxoek.

ERREDAKZIOA

Eskolako Agenda 21 programaren baitan, Tolosaldeko hainbat ikastetxetako ikasleek ekitate gabezia gaia landu dute ikasturte honetan. Urtero aurrera eramaten den ekimen honetan, aurtengorako gai hau aukeratu dute, bizitzaren ari garen krisi ekonomikoarekin zerikusi handia baitu. Proiektuaren helburu nagusia ikasleek ingurumena, kontsumoa, bizi kalitatea, pobrezia, giza eskubideak eta aztarna ekologikoa oso erlazionatuta daudela konturatzzea da.

Egindako lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak eraman zituzten herenegun Tolosa eta Berrobiko ikasleek Udal ordezkariengana. Atzo berri, gauza bera egin zuten Irurakoek.

Proiektu honetan Eskolako Komunitate osoak hartzen du parte: ikasleak protagonista nagusiak izanik, baina baita ere gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak.

Tolosan, sei ikastetxeen artean Hirukide, Laskorain, Samaniego, Orixe, Lanbide Eskola eta Paper Eskolakoek hartu dute parte Eskolako Agenda 21 programan.

Lan egiteko garaian, hiru ardatz nagusi hartu dituzte kontuan: eskolako kudeaketaren hobekuntza, kurrikularen azterketa eta komunitatearen partaidetza. Azken

atal honetan, hainbat lan egin dituzte. Esaterako, Haur Hezkuntzakoek, power point baten bidez, hiru haur desberdinen ohiturak aztertu dituzte, herrialde desberdinetako muturreko egoeren berri izan dutelarik. Lehen Hezkuntzako 1.º eta 2. mailakoek aisia eta denbora librean dirua hain ezinbestekoa ez dela jabetuarazteko, arratsalde bat ahalik eta diru gutxiengastatuz ondo pasatzeko saiakera egin dute. Lehen Hezkuntzako 3.º eta 4. mailakoek berriz, migrazioa animalietan, gizakietan eta gire gizartean oso ohiko jarduera dela ikasi dute, inkesta egin diete inguruan edota familian migrazioa gertatutako bati beraren bizipenei buruzko berri izateko. 5.º eta 6. mailakoek bidezko merkataritza zer den ezagutu dute, herritarrei inkesta bat eginaz, herrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten dendan inguruan galdetuz.

DBHkoek ere parte hartu dute proiektuan, bertako 1.º eta 2. mailakoek soldata txikiekin bizitzeko moduak, oinarritzko errentak eta %0,7 aztertu dituzte. 3.º eta 4. mailakoek Ingurumen Biografiak eta Aztarna Ekologikoa aztertu dituzte elkarriketen bidez, Ingurumen Biografien web orria kontsultatuz, inkestak eginaz eta galdetegiak erantzunaz.

Egindako ekintzen eta azterketen ostean, hainbat ondorio atera dituzte ikasleek, eta egoera hori aldatzeko ekimenak proposatu. Bestalde, beraiek aurrerantzean hartuko dituzte konpromisoak ere helarazi zizkieten Udal ordezkari. Ikasleek egindako aurkezpenaren ostean, Tolosako Udalbatzakoek eskerrak eman zizkieten egindako lanarengatik, eta alkateak adierazi

zian «aurten jorratu duten gaia oinarritzkoa da, hau da, kontsumoarena eta berdintasunarena». Bestalde, gaineratu zuen, Tolosan bizi diren guztiak posible egin behar dutela, bertako guztiak eskubide berdinekin izatea. Bestalde, Udalbatzakoek konpromisoa hartu zuten ikasleek egindako proposamenen idatziz erantzuteko.

Berrobiko San Andres ikastetxeko ikasleen lana

Berrobiko gaztetxoek, bi urtetik L.H.ko 6 maila bitartekoek, Lurberan proiektua landu dute eskolan. Mundua ezagutu nahian, beraien inguruan begiratzen hasi ziren, eta pentsatu zuten, posible izango litzatekeela inguruan bizi diren atzerriarrak eskolara ekartzeko. Bisita hauek izan dira lanaren ardatza. Mundu osoko jendea ezagutu dute, herrialde, modu, kultura eta kontinente desberdinetako

ak, munduko laburpena egiteko. Egindako lanen ostean hainbat ondorio atera zituzten, eta horietako bat da, ez dela aberatsena gehiena daukana, baizik eta daukanarekin konformatzen dena. Herenegun Udalarik egindako aurkezpenan galdetu zieten ea honek kontuan hartzen duen dirua garapenerako, eta laguntza eskatu zioten, Senegalen behar duten anbulantzia bat erosi eta mantentzeko. Bestalde, aipatutako anbulantzia erosi eta mantentzeko konpromisoa hartu zuten.

Irurako 166 ikasleek hartu dute parte egitasmoan

Irurako Ikastolako umeek eta gazteek ere ekitate gabezia gaia landu dute ikasturte honetan. Hauek ere herriaren diagnosis egin dute hainbat ekintzen bitartez. Lortutako emaitzen arabera, ondorio hauek iritsi dira: «etorkinek,

gure ohituretarata eta bizimodura egokitu behar dute. Beraiek, hau da, atzerriarrek, guk baino zailtasun handiagoak dituzte lana aurkitzeko garaian. Dena den, familia eta lagunak urrun dituzten arren, aldaketa hobetarako izan dela esaten dute gehienek».

Ondorioak aztertu ostean, proposamen batzuk egin zituzten ikasleek, egoera hobetu ahal izateko. Alde batetik, beraiek baino baldintza gogorragoetan dizi diren herrialdeei laguntzeko kanpainak bultzatuko dituztela adierazi zuten, eta gizon emakumeen arteko berdintasuna bultzatu, nahiz, emakumezkoen lan mundurako sarrera. Azkenik, etorkinei euskara ikasteko aukerak eman behar zaizkiela adierazi zuten, gaur egun egin diren eskaintzak arrakastarik ez dutenez, kanpainak beste modu batean eginaz.

Proposamenak egiteaz gain, konpromiso batzuk ere hartu dituzte irurarrak. Hala, gure hizkuntza eta ohiturak ikasten lagunduko diete beraien ikastetxera etortzen direnei; eta beraien lagunak izango dira, inor baztertu gabe. Amaitzeko, beraien herrian integrazten lagunduko diete.



Irurako Ikastolako ikasleak Marimi Ugalde alkatearekin elkartu ziren atzo goizean, udaletxean. HITZA



Herritarrek omenaldia egin diote Javi Gordori

POLITIKA ■ Javi Gordori omenaldia egion zioten atzo iluntzean herritar ugariak. Pasa den apirilaren 25ean utzi zuten aske tolosarra, eta egun horretan bertan harrera egin zioten herrian. Atzokoan, omenaldia egin nahi izan zioten. Hala,

Triangulotik abiatuta, manifestazioa egin zuten lehendabizi herritik barrera. Ondoren, Arostegieta kalean Tolosako euskal presoan argazkiak jarri zituzten, eta Gordok berea kendu zuen, *Eusko gudariak* abesten zuten bitartean. Han

bidutakoak Oargi elkarterantz joan ziren ondoren, omenaldiari amaiera emanaz. Javi Gordo 2005. urteko abenduan atxilotu zuten. Mexiko eta Espainako hainbat espetxetan izan da, apirilaren 25ean Langraitzekoa utzi zuen arte. it.

ELAk eta LABek grebarako deia egin dute «langileen eskubideak babesteko»

Ekonomia ■ Langabetu kopuruak gora egin duela, eta egoera larritu egingo dela nabarmendu dute bi sindikatuek.



Tolosaldeko eta Goierriko ELA eta LABeko ordezkariak herenegun egin zuten agerraldia Beasainen. M. LEGARRETA

MAITANE LEGARRETA

ELA eta LAB sindikatuek maiatzaren 21ean greba egiteko deialdia publiko egin dute. Hain zuzen ere, herenegun egin zuten agerraldia Beasainen, Tolosaldeko eta Goierriko ordezkariak eta krisiaren aurrean erantzun bateratua ematea eta langileen eskubideak defenditzea dela grebaren xedea esan zuten. Tolosaldeko 42 enpresatako ordezkari sindikalek, 180k guztira, eman diote babesa dagoeneko greba orokorraren deia.

Krisi garaian langabetuen kopuruak gora egin duela gogoratu zuten bi sindikatuek, LABen Beasaineko egoitzan emandako prentsaurrekoan. Tolosaldean 2.289 langabetu zeuden apirilaren INEMen datuen arabera, iaz baino 675 gehiago. Langabetu hauetatik, heren batek ez du langabezia prestatziorik jasotzen, sindikatuen arabera; «ez dute, beraz, inolako diru sarrerarik».

Horie lan erregulazio espedienteak eragiten dieten langileak gehitu behar zaizkiela nabarmen zuten dute: «Tolosaldearen kasuan, 15 espediente daude indarrean,

683 langileri eragiten dietenak».

Egoera «larritu» egingo dela diote bi sindikatuek: «Lehen fasean behin-behinekoak eta langabeteak bota dituzte kalera, lana murrizteko neurriak eta beste batzuk hartu dituzte, era berean. Orain beste fase batean sartzen ari gara, egoera larriagotu egingo da eta enplegu gehiago suntsituko dituzte. Hainbat enpresatan lan erregulazio espediente bat amaitu orduko bestea dator. Kaleratze asko izango dira, ez dezagun ahaztu langilearen %96 banaka kaleratzen ari direla, neurri horien beharrik gabe», adierazi zuen LABeko Oihane Lopez Agerraldian.

Halaber, instituzioen jarrera kritikatzeko dute, krisiaren aitzakian diru publikoa negozio pribatuak bultzatzeko erabili dutela esanez. «Enpresariei nahiz banka-

riei emandakoa politika sozialetikentzen da. Lan Delegaritzara helmutako espedienteetatik ia guztiak onartzen dituzte».

Patronalen jarrera «gogorra»

Patronalak «oso agresibo» jokatzeko ari direla gaineratu zuen ELAko Egoitz Iturbek. «Aldi baterako langileak, azpikontratatuak eta autonomo faltsuak kaleratzen ari dira, eta doan atera zaie. Horrelakoetan, gainera, lasai egoteko esaten diete, lana dutenean deituko dietela; baina ez da egia. Kalte ordainik ere ez zaie iristen».

Administrazioak egindakoa lortsagarritzat jotzen du Iturbek: «Azken 12-15 urteetan oparotasunaz aprobetxatu dira. Enpresariei eta kapital eta errenta altua duten guztiari zergak gutxitu dizkiete, enpresariei etengabe jaitsi dizkiete

Gizarte Segurantzako kotizazioak, langabeziaren prestazioak murriztu dira. Langileek ordaindutakoa beste batzuek gastatu dute. Langileengan inbertitu behar dute, gizarte zerbitzuetan, osasungintzan. Gizartea kaltetzen ari dira eta guk langileengan inbertitzen duen administrazioa nahi dugu».

Bestalde, eredu ekonomikoa eta soziala Euskal Herrian erabakitzeko eskubidea aldarrikatu zuen LABeko Olatz Amianok: «Arazoa

ez da krisi honekin hasi, langileak eta jendarteko sektorea aspalditik gaude krisian. Eredu kapitalistaren ezaugarria da, ekonomia langileen eta herrien ongizatera bideratuta egon beharrean langileak nahiz herriak sakrifkatzen dira, ekonomiaren izenean, gutxi batzuek poltsikoak betetzearen. Eredu sozioekonomiko eta politikoa berria finkatzeko eredu Euskal Herrian erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, lan harremanak gure artikulatzeko».

Tolosaldeko enpresen babesa

Tolosaldeko 42 enpresatako 180 delegatu sindikalek babesa adierazi diote grebari, 30 langiletik gorako enpresetakoek. «Enpresa batzuetan batzarrak egin dituzte grebari baiezkoa edo ezezkoa emateko eta baiezkoa eman diote. Beste enpresa gehiagok datozten egunetan egingo dituzte». Bestalde, hilaren 15ean dendetan eta tabernetan informazioa banatuko dute, arrazoia azaltzeko eta atxikipena eskatzeko.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa).

Etxeak. Iurren eta Korreo kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean, Iurren eta Batxilergo Zaldibian, erosteko aukerarekin.
Salgai (Tolosa). Etxebizitzak. Kale Nagusian, Araba etorbidean, Batxilergo Zaldibian.
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Larramendin, igogailuarekin. Eraikuntza berria. Aukera ona.
Salgai. Etxebizitza eraberritzeko, Legorretan 32.000.000 pztia eta Iruan 20.000.000 pztia.
Salgai (Iruan). Etxebizitza sartzeko moduan. Eskaintza ona.
Salgai. Garaje ibiak eta irekiak.
Salgai. Amarotzen (Tolosa), Ibarren eta Iruan.
Salgai (Tolosa). Lokala. Gorriri plazan.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Pottokak.** Bi pottoka eme salgai. Harremanetarako telefono zenbakia: 669 92 86 78.

Hilaren 16an ospatuko da bigarren, Txapin Festa



Atzo aurkeztu zuten Tolosako hainbat gaztek, Abastos atzean zutela, aurtengo Txapin Festa. ESTI EZEIZA

Gizartea » «gazteen arteko harremanak sendotzeko asmoz eta iazko arrakastaren ostean», berriro antolatu dute jaia.

ERREDAKZIOA

Txapinak jantzi eta festara joateko proposamena egiten dute berriro ere Tolosako gazteek. Iaz antolatu zuten lehendabiziko aldiz Txapin Festa, eta «izan zuen arrakasta ikusita», berriro antolatzea erabaki dute. Aurtengoan, hilaren 16an izango da. Honenbestez gazte sentitzen diren tolosar guztiak gonbidatzen dituzte festan parte hartzera. Oraingoan gainera dei berezia egiten diete «gaztetasunaren bigarren eta hirugarren fasean dauden guztiak».

Atzo aurkeztu zuten ekimena Tolosako hainbat gaztek. Hauek, maiatzeko egun hau gazte tolosarrentzat egun seinalatua izatea nahi dute. «Herriko gazteak antolatu eta parte hartuko duten jai herriko, euskaldun, parekide eta parte-hartzailea izan nahi du Txapin Festak», eta horretarako, hiriko kaleak bertako gazteen izaeraz beteko dituzte hilaren 16an. Bestalde, gazteei eragiten dieten arazoak eta aldarrikapenak tokia

izango duten egun bat proposatzen dute antolatzaileek.

Iaz antolatu zuten lehendabiziko aldiz jaialdia, Tolosako gazteen artean harremanak sendotzeko asmoz. Izan ere, atzo Jon Ander Azkolain antolakuntzako kideak azaldu zuenez, «Tolosako gazteok eremu desberdinetan bildu, antolatu eta erlazionatzen gara: koadriletan, gazte lokaletan, lonjetan, tabernan... Bakoitzak bere txokoa du, bere ingurunea, baina agian denok bilduko gaituen gune baten beharra ere badago».

Iazko esperientziaren ostean «oso zapore onarekin» amaitu zu-

ten eta aurtun ere asmo berarekin datoz, gogotsu eta ilusioz. Baina, lehen aipatu bezala, gazte sentitzen den orok du lekua jaietan. Hori dela eta, jaia aberatsagoa izan dadin, eta herriko gazte belaunaldi ezberdinen arteko harremana sendotzeko, adin talde ezberdineko tolosarrak bildu nahi dituzte. Izan ere, gazte asko elkartu baziren ere, oro har, gehienak oso gazteak ziren.

Atzoko aurkezpenari bukaera emateko, eskerrak eman nahi izan zizkieten antolatzaileek, Ezpeleta ostalaritza elkarteakoei, «eman dигuten laguntzarengatik».

» TXAPIN FESTA 09

Maiatzak 16, larunbata

■ **10:30ean.** Poteoa gazte lokal eta lonjetatik barrena.

■ **12:00etan.** Ikastaroa Mulañbo perkusio taldearekin, eta ondoren, 13:00ak aldera, kalejira, Alde Zaharretik barrena.

■ **14:30ean.** Gazte bazkaria Abastosen. Akuilurekin elkarlanean, gazte baseritarren produktuez prestatutako bazkaria izango da. Txartelak salgai daude 12 euroren truke, Orbela, Raku, Denak, Bikutz eta Meskal tabernetan. Antolatzaileran esanetan, lehen bailehen erostea komeni da.

■ **16:30ean.** Herri jolasak Xibarekin. Eguraldi ona eginez gero Plaza Berrian izango dira, eta gainerantzean, Zerkausian.

■ **17:00etan.** Ordu honetan gutxi gorabehera, *Gazteak artez blai* ekimena hasiko da. GKO Galeriakoekin elkarlanean antolatu dute estreinakoz ekitaldi hau. Bertan, herriko gazteek artelan bat egingo dute.

■ **19:30ean.** Ordu honetatik aurrera kontzertuak izango dira Abastosen. Unsain anaiak, Kantaflor eta Lobo Electrico + Dj Zapun ariko dira bertan.

Laburrak

Pedro Tolosa kalea itxita egongo da bi astez

GARRAIOA » Pedro Tolosa kalean egingo diren lanengatik, astelehenetik aurrera, bi astez kalea trafikorako itxita egongo da, garajeentzako izan ezik. Bestalde, San Frantzisko pasealekutik Araba etorbidera joateko errepidea ireki da. TSST autobus linea (berdea), SAMeko zubitik joango da eta Paper Eskolan egingo du geldialdia. Ondorioz, M. J. Iraolako (Berazubi) geralekua kendu egingo da.

Bihar Maiatza Borrokan-ekin, bazkaria izango da

GIZARTEA » Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako Maiatza Borrokan ekimenaren baitan, Fronte Polisarioaren sorreraren 36. urteurrena ospatzeko asmoz, bazkaria egingo dute bihar Tolosaldeko sahararrek batera. Hau Ereite elkartearen egoitzan, San Esteban auzoan izango da, 14:00etan. Bestetik, gaur 18:30ean Aretxabaletan Mendebaldeko Sahararen aldeko lasterketa herrikoia egingo dute eta bertan parte hartzeko deia luzatzen dute elkarteak.

'Hula girl' eta 'El gran torino' filmak ikusgai, bihar

KULTURA » Bihar arratsaldean bi film ezberdin ikusteko aukera izango da Leidorren. Alde batetik, 17:00etan, haurren saioan, *Hula girl* lana eskainiko dute. Bestetik, 19:30ean eta 22:00etan Clint Eastwood-en azken lana ikusteko aukera izango da. *El gran torino* hain zuzen ere. Astelehenean, ikuslearen egunean, berriro, 20:30eko saioan, Eastwooden filma botako dute.

Naturaldiko beste hitzaldi izango da Zarautzen

NATURA » Naturaldia jardunaldi eta Tolosako ekitaldiak amaitu baldin badira ere, Zarautzen eta beste herri batzuetan oraindik era saioak izango dira. Zarautzen, datorren ostegunean, hilak 14, 19:00etan, Zarautz: Gipuzkoako itsasbazterra kudeatzeko talaiaren bururapean mintzatu da Raul Castro AZTI-Tecnaliakoa. Aitor Lekuona biologo-urpekaria ariko da aurkezle lanetan. Hitzaldia udaletxeko Batzar Aretoa izango da, 19:00etan.

Playa de Arora bidaia antolatu du Arizpek

AISIA » Harizpe jubilar eta pensiodunen elkarteak bidaia antolatu du Playa de Arora (Girona, Herrialde Katalanak). Ekainaren lehen joango dira eta 15ean itzuli. Oporaldiaren prezioa bazkideentzat 391 euro da eta gainontze koentzat 397. Elkartearen bertan eman daitezke izena.

Maiatza Gorrian, gaur, globalizazioaz ariko dira

GIZARTEA » Kolonbiako egoera izan zen hizketagai atzo Otsabi elkartearen. Izan ere, azken egunetan, Maiatza Gorria izeneko ekimena ari dira gauzatzen. Komite Internazionalistakoa kideak izan ziren bertan, gai horretaz hitz egiteko. Honez gain, Palestinara antolatzen dituzten brigadak aurkeztu zituzten. Maiatza Gorriko ekitaldiak jarraituz, gaur, 18:30ean *Voces contra la globalización* dokumentalaren kapitulu bat ikusteko aukera izango da Otsabi elkartearen. Proiektzioaren ondoren, festaxo bat egingo dute arabiar musikarekin.



1949an jaiotako bazkaria, Frontonen

GIZARTEA » 1949an jaiotako tolosarrek 60 urte betetzen dituzte aurtun, eta hori ospatzeko, kinto bazkaria egitea erabaki dute lehendabiziko aldiz. Ospakizuna hilaren 16an izango da Tolosako Fronton jatetxean. Ekitaldi honetan parte hartzeko interesa dutenek, hilaren 13a baino lehen eman behar dute izena. Hau Frontonera bertara (943 65 29 41), J. M. Irastorzarri (609 83 29 69) edo Mila estankora (943 67 04 47) deituta egin ahal da. Honez gain, beste hainbat ekintza ere egingo dituzte egun berezi horretan. HITZA

1949an jaiotako bazkaria

diskoteka alokatzen da

677 177 286

«Hizkuntza eskubideen urraketaren aurrean, herritarrak salatu behar du»

Villabona » Azken egunetan «Osakidetzak euskararekiko duen jarrera» salatu dute hainbat gizarte eragilek.

ERREDAKZIOA

Herenegun, Villabonan EHEko kide batzuk, LABeko kideak, UEMAko udaletako hautetsiak eta eskualdeko euskaltzale batzuk bildu ziren, Osakidetzaren aurkako mozioaren berri emateko eta hizkuntza-eskubideen urraketaz aritzeko.

Hizkuntza-eskubideen egoeraren lehen diagnosi aurkeztu zutenetik, (2001ean), «osasungintzaren eremua beltzune izan da beti». Askotan eskubide-urraketaren berri helarazi zaio Osakidetzari: zerbitzua euskaraz ezin jaso, informazioa gaztelania hutsean zabaldu... «Konponbidea emateko urra-



Prentsa agerraldian Paul Bilbao Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria, Marimi Ugaldel Irurako alkatea eta Xabat Laborde EHEko kidea. I. GARCIA

tsak eman beharrean, hizkuntza-eskubideen urraketak betikotzeko politikari ekin diote».

2002an milaka lanpostu hornituzeko lan deialdian ez zitzaizela euskararen derrigorrezko ezagutza ezarri salatu dute, «Euskara Normalizatze Dekretuak gabezia guztiak konponduko zituela i-

tzakiatzat jarrita». Ondorengo lan deialdian «euskararen derrigorrezko ezagutza sinbolikoa izan da».

«Ez dago eskubiderik. Egoera hau jasangaitz bihurtu da berezko hizkuntza baliatu nahi duten herritarrentzat», azaldu dute. Hala, ondorioz, Behatokiak bere atxiki-

mendua agertu nahi dio Tolosaldeko hainbat udalek, beste hainbat eragilerek batera ekin dioten kanpaina honi.

«Beste oztopo bat gehiago»

Villabonako Euskal Herriari Euskaraz taldea Osakidetzako oposaketei buruz aritu zen, «euskararen normalkuntzarako oztopo berri bat» jarri dutela adieraziz.

Datozen hilabeteetan oposaketa bidez 2.400 lanpostu publiko eskainiko dituzte Osakidetzan. Kasu honetan ere euskararen ikuspegitik «Jauralaritzaren iruzur berri baten aurrean gaude». Oposaketa hauen bitartez, Osakidetzaz bezalako oinarrizko zerbitzu publikoan, «euskaldunok pairatzen ditugun hizkuntza eskubideen urraketak orokortu baino ez dira egingo».

Beraz, «euskaldunon hizkuntza eskubideen aurkako eraso larri baten aurrean gaude. Gure herriko zerbitzu publikoetan gure hizkun-

tzan artatuak izateko eskubidea dugu eta oposaketa hauek eskubide honen bortxaketa sistematikoan sakontzea» ekartzen dute.

Datuek argi erakusten dutela «administratioetan indarrean dagoen hizkuntza politikak hutsune nabariak» dituela diote. «Aldaketaren premia inoiz baino ageriagoa da, erroko aldaketa. Euskal Herri euskalduna dugu helburu. Eta herritarrak izan behar gara horretan protagonista nagusi, gure esku baitago».

Azkenik, presio egiteko biderik eraginkorrena herritarren inplikazio zuzena dela adierazi zuten. Beraz, «gure eskubideen kontrako eraso honen aurrean herritar guztiak dei egin nahi diegu Osakidetzaren anbulatorioetan euskaldunen eskubideak aldarrikatu ditzatela».

Atxikimendua eman dutenak

UEMA n sartuta dauden 11 herrik onartu dute dagoeneko mozioa eta baita Villabonak ere. Bestelako atxikipenak hauek dira: LAB, Euskal Herriari Euskaraz, Tolosaldeko AEK, Kontseilua, Villabonako Bai Euskal Herriari, Hizkuntz Eskubideen Behatokia eta Txolarre Irratia.

Bigarren aldiz, Beterriko Saria Lertxundirentzat

ERREDAKZIOA

Anjel Lertxundik idatzi eta Alberdania argitaletxeak plazaraturiko *Zoaz infernura, lastana* eleberria da 2008ko Beterriko Liburuaren saria jaso duena. Urtarrilaren amaieran abian jarri eta pasa den apirilaren 23an amaitu zen bozketza prozesuak utzi duen emaitza izan da hau. Zizurkilgo Olentxo jabetxean egin zuten sari banaketa ekitaldia.

Aurreko saria, 2002an

Oriotarrak eleberri sarituaren larraz enkoadernaturiko ale bat eta sariaren ziurtagiria jaso zituen ekitaldian. «Pozik» agertu zen Anjel Lertxundi Beterriko Liburuaren Ohorezko Literatur Aipamena bigarren aldiz jasotzean. 2002an irabazi zuen lehen aldiz *Zorion perfektua* eleberriarekin, eta 111 Akademiako kideek 2008an ere oriotarraren *Zoaz infernura, lastana*



Anjel Lertxundik hitzaldian irakurleen garrantzia azpimarratu zuen. HITZA

na aukeratu dute urte horretako Beterriko Liburu.

Anjel Lertxundik Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako jarduneko sailburuorde Patxi Baztarriaren eskutik jaso zuen larruz enkoadernaturiko alea, eta 111

Akademiako behin-behineko akademiaburuaren eskutik sariaren ziurtagiria. Irakurleaz aritu zen oriotarra hitzaldian, «azken 30 urte hauetan asko jaso omen dugu literaturaren maila, eta hori esaten denean idazleak bakarrik aipatzen

dira. Baina idazleok ez genukeen aurrera egingo zuek gabe. Maila hau ez zitekeen jasoko irakurleek maila jaso ez bazenute».

Irakurlea protagonista hartzen du Beterriko Liburuak, saria banatzeko euren bozka hartzen baita kontuan. Estibalitz Alkortak idazlearen zori ondu zuen bigarren aldiz

Beterriko Liburuaren saria irabazteagatik. «Gizonaren botere itsuaren mende sufritzen duen emakumeari justizia literario pixka bat emateko ahalegina izan daiteke *Zoaz infernura, lastana*-ren definizio bat. Alde horretatik, use du legezkotza dela aitortzea Lertxundiren liburuaren ausarta dela».





VI. Garagarda Festa

sarrerak

sarrera pareen **saridunak**

- Joxe Mari Artieda (Añoeta)
- Ramon Barrenetxea (Tolosa)
- Nieves Alargunsoro (Ibarra)
- Lurdes Karrera (Ibarra)

Asteburu honetan 18:00etatik aurrera!



Koldo Mitxelena Kulturunea
Lindetxea kalea 9 • 20006 DEINGOSTIA,
Tel.: 943 11 28 93
programarioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK



Ganbaran
Elena Odriozola:
TXORITXOAK
Apirilaren 29tik ekainaren 13ra

Erakustaretoan
ARTISTA BERRIEN XLIII LEHAKETA
Apirilaren 21etik maiatzaren 30era

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
18:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaieganetan hitza
Bisitaldi gidatua: kmk@kormark.com
Tel. 943 112 754 / 667 346 025

20 Hatz proiektua, euskal tresnekin egindako soinuaren jostaketa

Ibarra » Ion Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plazak 20 Hatz proiektuaren hirugarren «geltokia» aurkeztu berri dute: diskoa.

REBEKA CALVO

Proiektu «bitxia» darabilte Ion Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plaza bilbotarrak. 20 Hatz bezala batailatuta zuten eta orain proiektuaren hirugarren «geltokia» aurkeztu dute; 13 kanta biltzen dituen 20 Hatz proiektu diskoa. Izan ere, 20 Hatz ez da berria eta orain arte beste bi «geltokia» gauzatu dituzte, hau da, kontzertu didaktikoak eta ikastaro zehatzagoak. «Azken urteetan, bion artean, bildu ditugun esperientzia musikalen, lanen eta bidaiaen laburpen bat egin nahi

izan dugu, eta, horretarako, gutariko bakoitzak bere 10 hatzak jarri ditu bidaia luze honetan, 10 + 10 = 20 Hatz, hori da disko honetarako aukeratu dugun izena», argitu zuen prentsaurrekoan Ion Garmendiak.

20 hatz horiekin batera, hala ere, beste musikari baten 10 hatzak ere izan dituzte bidelagun; Kepa Calvo, batera, tubiogh-a eta perkusioak jotzen dituen.

Euskal folklorea

Proiektuaren ardatza euskal folklorea da, euskal musika tresnak, eta baita hauek jendeari hurbiletik erakusteko grina ere, baina aurrerapauso bat ere eman dute. «Euskal folkloretik abiatuta iraultzen saiatu gara», esan zuen Garmendiak zentzu honetan. Iraulketa honetarako, batetik instrumentu be-



Iñaki Plaza, Kepa Calvo eta Ion Garmendia tubiogh-a jotzen. R. CALVO

riak asmatu dituzte eta bestetik erabilpenean ere berrikuntzak sartu dituzte; soinuak prozesatu dituzte efektu desberdinak lortuz. Sortutako instrumentuari tubiogh izena jarri diote. Pvc materialeko tutuak dira, alde batean gomazko partxeak jarri dizkiete eta bakete-kin jotzen dituzte. «Tutuen luze-erekin lortzen ditugu notak eta baxu baten soinua lortzen dugu», esan zuen Iñaki Plazak. Sortutako instrumentu honekin batera plastikozko bidoiak ere erabiltzen dituzte txalapartarekin batera.

20 Hatz Proiektu diskoak 13 kantuetatik bik bakarrik dute letra, Amaia Agirrerrenak, hain zuzen. Agirrerrenak batera jende askok hartu du parte diskoan: Oskorrin aritzen den Xabier Zeberio, nycklarpa jo duena, Tactequetekoak, Faltriqueira taldeko Maite Garcia abeslaria, Berrogietto taldekoak, Asturiasko Tejedor taldearen gaitak... Grabatu ere leku askotan egin dute, Elkar disketxeko estudioez gain, Arabako Garraztatxuko baselizan izan ziren, Orduñan, Compostelan...

Txistuaren, albokaren, txalapartaren, tubiogharen eta perkusioaren hotsak nagusitzen dira disko honetan, hortaz, baina guztiari «esperimentazio» kutsua eman diote musikari gazteek.

Suziriarekin eta buruhandiekin ekingo diote, etzi arratsaldean, XIX. Kultur Asteari

Berrobi » Sukaldaritzaren erakusketak, magoak, pilota... antolatuta dituzte kulturari eskainitako astearen barruan.

ERREDAKZIOA

Azken urteetan bezala aurten ere Kultur Astea antolatuta dute Berrobin. Astelehen honetan, hilak 11, hasiko da eta hilaren 17ra arte iraungo du.

Aurtengoa 19. edizioa da eta urtero bezala «Kultur Aste duina» antolatzen saiatu direla diote antolatzaileek. «Aurten antolatzen ibili garenak gustoko eskaintza izateko espero dugu», gaineratu dute.

» EGITARAUA

Hilak 11, astelehena

- 17:30. Suziri eta buruhandiak.
- 18:00. Angel magoa.
- 19:00. II. Eskola txapelketa so-lastokian.

Hilak 12, asteartea

- 17:00. Urreburuko gaztetxoan pilota partidak: Joseba-Maialen eta Josu-Eñaut; Ibai-Beñat eta Imanol-Junior; eta Julen-Aitor Amañur-Lesmes.
- 18:15. Sukaldaritzaren erakusketak Hernialde jateko Felix Garrido sukaldariarekin Bide-Ona elkarte-ko. Erakusketan platerak zozketatu dituzte eta haurtzandegi zerbitzua ere eskainiko dute Etxolan.

Hilak 13, asteazkena

- 18:30. Sukaldaritzaren erakusketak Berrobiko Iriarte jateko Felix Belauntzararen sukaldariarekin Bide-Ona elkarte-ko. Platerak zozketatu dituzte eta haurtzandegi zerbitzua egongo da.

Hilak 14, osteguna

- 17:00. Idoia Sanchez ipuin kontalaria Galtzaundiren eskutik Liburutegian.
- 19:00. Mundu-zaintzaileak hitzaldia Ander Izagirrenen eskutik Eskolako soinketa gelan.

Hilak 15, ostirala

- 17:30. Eskolako ikasleen em-

naldia ikastetxean. Jarraian Literatur Lehiaketako sari banaketa egingo dute.

Hilak 16, larunbata

- 09:00. Mendi martxa; Berrobi-Leaburu-Belauntza-Berrobi.
- 16:00. Mus Txapelketa solastokian.
- 18:30. Toka Txapelketa solastoki aurrean.
- 19:00. Umeen I. Frontenis Txapelketa finala.

Hilak 17, igandea

- 12:00. Txakoli dastaketa Udaletxe aurrean.
- 17:30. Umeen erromeria.

Danborrada izango da Bartola jaietan

ERREDAKZIOA

Berreskura dezagun lempaean Bartola jaien batzordeak aurten danborrada egingo dutela esan du. Laz ez zen egin, baina aurtengoan Bartolakoek ahalegina egin eta abuztuaren 2lean egingo dute.

Entsegu bakarra egingo dute, egunean bertan. Parte hartu nahi dutenek eta traje zaharra dutenek hori eramateko esan dute eta ez dutenek berriz abarkekin, maiezi-ko galtzekin, alkandora txuriarekin eta zapi zein txapela moreekin jotoke eskatu dute.

Afaria, poteoa eta parranda izango direla esan dute eta Bartola jai batzordeak, era berean, herritar guztiak animatu nahi ditu parte hartzera.

Hilberria

JOSE SAMPEDRO AGIRREBENGOA

Herenegun hil zen, 81 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bederikapena hartu ondoren.
-Goian bego-

Bere anima zuzendaria: Juan M^o Olaetxea; anai-arrebak: M^o Luisa (Arturo Burgosen alarguna), Imanol; ilobak: M^o Jose eta Juan Agirre, Armelia, Belen eta Luis M^o Izquierdo; lehengusuak eta gainerako ahateak.

Haren animaren alde otobit bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko SEIETAN, SAN MARTIN parroki elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara-elizkizunera. Eskernikasko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Lizardi etxea 4.B
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Bialatxian egongo da.



ATAUN
2009ko
maiatzaren 9a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Ez da haur txokoa antolatzen den lehen aldian Leitzan. JAIONE ASTIBIA

Uda honetan etxean gelditzeko arrazoi gutxi ikasleentzat

Leitza » Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ekainetik abuztura haur txokoa eta udako tailerrak antolatatu dituzte.

ASIER IMAZ

Ikasturtea amaitzean aurkitzen da. Klaserik egongo ez denez, haurrak ikastolara joan beharrean etxean egongo dira.

Leitzako Udala, Euskara Zerbitzua, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Dindaia Fundazioa horren jakitun dira, horren adibide da zabaldu duten mezua: «Udan ez gelditu etxean». Ez hori bakarrik, ikasturte amaieran haurrek zeregina izan dezaten, aukera bat proposatu diete: udako tailerrak eta haur txokoa.

Ekimen hau aurrera ateratzeko INEMen diru laguntza ere lortu dute.

Matrikula eta informazioa

Haur txokoa eta udako tailerrak ekainaren 29tik abuztuaren 7ra bitarte egongo dira funtzionamenduan. Aurten beraz, 6 asteko egitaraua antolatatu dute.

Zer, zenbat, noiz, nola, non eta abar argi ez dutenentzat telefono zenbaki bat jarri dute, 948 51 08 40 hain zuzen ere. Galdera horien guztien erantzuna garbi duenak eta izena emateko prest dagoenak, 012 telefono zenbakira deitu behar du: «012ra deitu behar da matrikula egiteko: datuak eman eta ordaindu beharrekoa momentuan jakinaraziko dizute».

Haur txokoa eta udako tailerretan parte hartzeko ekainaren 3tik 12ra bitarte egongo da izena emateko aukera.

Prezioen dantza 25 eta 182 euro tartean dabil. Noski, haurrak ekimen honetan pasatzen dituen orduen edo asteen arabera.

Seme-alaba bat baino gehiago dituzten gurasoentzat beharpenak egongo dira: «bi senide matrikulatzeagatik %12ko deskontua egongo dute guztira ordaindu behar den kopuruan. Izena ematen dutenak hiru senide edo gehiago direnean %30eko deskontua egiten da».

Haur eta Lehen Hezkuntza

Talde banaketa mailaren arabera egongo da, hau da, Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleek haur txokoa eman behar dute izena. Hirugarren mailakoek aukera edukiko dute: haur txokoa edota udako tailerrak.

Lehen Hezkuntzako sei mailerako ikasleek Udako tailerretan eman beharko dute izena.

Azken ekimen honetan 6-12 urte bitarteko haurrek zer egongo dute? Udara luzea denez tailerrak gai ezberdinen inguruan izango dira, data desberdinetan banaturik. Hala nola, ekainaren 29tik uztailearen 3ra, *Aire, aire!* izeneko egitasmoaren bidez haurrak udaran murgilduko dira: «jolasak, irteerak, jokoak... izango dituzte». Uztailearen 6tik 10era, *Sukaldean esperimentatu* tailerra jarriko dute martxan: «Usaimena, zaporea, ikusmena, ukimena, esperimentazioa... landuko dira erabat sukaldearen inguruan».

Ondoren *Makinekin jostatu, Munduari bira aste batean eta Momenturik hoberenak* tailerrak etorriko dira, abuztuaren 7an Udako tailerrei agur esateko. Etxean gelditu ordez, udaran kalera irteteko, aurten bada nahikoa arrazoi.

Leitzako XXXI. Kultur Astea hilaren 18an hasiko da hilaren 31n amaitzeko

Kultura » Leitzako Kultur Taldeak herriko hainbat talde eta elkarteren laguntzaz egitarau oparoa antolatatu du.

guntza: Aurrera Kirol Elkartea, Peritza, Gazte Asanblada, Bilgune Feminista, Torre, Mendibil, Udala, Gizarte Zerbitzua, Talogileak,

Herriko dendak eta tabernak, Ja-tetxeak, Banketxeak, Lantegiak... Parte-hartze oparo honen emaitza ondorengo egitarau erraldoia da.



laz bezala, aurten ere artisau azoka egongo da Kultur Astean. NAIARA GARZIA

A. IMAZ

Leitzako Kultur Taldeak XXXI. Kultur Astea antolatatu eta aurkeztu du. Hamahiru egunetan zehar, hilaren 18tik 31ra, herritarrek eta ingurukoek hainbat ekitaldi edukiko dituzte eskura.

Kultur Astea aurrera aterazedin ondorengo taldeak eskaini dute la-

» EGITARAUA

Maiatzak 18, astelehena

■ **19:00etan.** Liburutegian, *leitzakultura.net* webgunearen aurkezpena.

■ **20:00etan.** Aurreran Ade Sotilen hitzaldia: *Guatemalako bizipenak Gobernu Kanpoko Erakunde batetik.*

Maiatzak 19, asteartea

■ **20:00etan.** Zinean Ander Letamendiaren hitzaldia: *Eskularien eskuetako gatzakak.*

Maiatzak 20, asteazkena

■ **20:00etan.** Aurreran hitzaldia: *Atundu liburuaren aurkezpena eta Euskal Jantzien Atontze tailerra Ane Albisuren eskutik.*

Maiatzak 22, ostirala

■ **15:00etatik 16:30era.** Eskolan Dindaiaren *Xamariko jolasak.*

■ **18:00etan.** Zinean antzerkia: *Xamarikoren kutxa magikoa.*

■ **20:00etan.** Aurreran hitzaldia Edorta Agirre sukaldariaren eta Asisko Urmeneta margolariaren eskutik: *Jaki(te)az.*

■ **23:00etan.** Peritzan rock kontzertua: Hoey & The Mussels taldea.

Maiatzak 23, larunbata

■ **11:00etatik 13:00etara.** Igerilekuan grafiti tailerra 12-15 urte bi-

tartekoei zuzendua: *Emaziozu igerilekuari sensualitate puntu bat I.*

■ **12:00etan.** Gaztetxean antzerkia: *Eta Karmele.*

■ **14:30ean.** Gaztetxean bazkari herrikoa. Ondoren argazki emanaldia eta hitzaldia: *Hegoamerikatar bidaia.*

■ **19:00etan.** Kalejira FTF Street Band taldearekin.

■ **21:00etan.** Gaztetxean luntxa.

■ **23:00etan.** Gaztetxean kontzertua.

Maiatzak 24, igandea

■ **10:00etatik 14:00etara.** Gorritenean Peru-harrira bisita libre. 12:30ean aurkezpena.

■ **18:30ean.** Elizan organo kontzertua Raul del Tororen ikasleen eskutik.

■ **19:30ean.** Zinean dantza kontzertuarekin: Locus Desertus.

Maiatzak 25, astelehena

■ **20:00etan.** Aurreran Leitzako ahozko ondarearen aurkezpena.

Maiatzak 26, asteartea

■ **19:00etan.** Liburutegian hitzaldi-ikastaro laburra Javier Fernandez eskutik: *Ordenagailu bat erosi duzula?*

Maiatzak 27, asteazkena

■ **19:00etan.** Aurreran Ima Zes-

tauren hitzaldia: Haurren adopzioa. Ondoren, jolasaldi irekia.

Maiatzak 28, osteguna

■ **20:00etan.** Aurreran Floren Aozien hitzaldia: *1.512. urteko Nafarroaren konkista.*

Maiatzak 29, ostirala

■ **20:00etan.** Torrean Zirika Zir-kus taldeko Pantxika Lamurren antzerki emanaldia: *Nik egin behar ko & ko.*

■ **00:00etan.** Torrean Heavy kontzertua: Kantaflor taldea zuzenean.

Maiatzak 30, larunbata

■ **09:30ean.** Plazatik oinez abiatu eta eskalada saioa trenbidean, Kandeltexe paretsuan.

■ **11:00etatik 13:00etara.** Igerilekuan grafiti tailerra 12-15 urte bitartekoei zuzendua: *Emaziozu igerilekuari sensualitate puntu bat II.*

■ **19:00etan.** Zinean Fidel Mendiaren eta Ian Baquerinen ikuskin-zuna: *Mendiko Eskia Kaukason.*

■ **20:30ean.** Plazan folk kontzertua: Keltiar Aldea zuzenean.

Maiatzak 31, igandea

■ **11:00etatik 20:00etara.** Plazan XXXI. Artisau Azoka.

■ **20:00etan.** Plazan dantzialdi Garraxi taldearekin.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

- **Tolosa.** Innervet eta Kaskezur taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
- **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren kontzertua Zerkausian 19:30ean.

Antzerkia

- **Tolosa.** Ate joka antzerkia 20:30ean Leidor antzokian.

Deialdiak

- **Ibarra.** Kantu afaria Ibarren 21:00etan, herriko abeslarietan.

Erakusketak

- **Tolosa.** Txileko Kiltv kolektiboaren margolanak ikusgai igandera arte Plaza Zaharrean eta GKO Galleryn.
- **Tolosa.** Berdintasun sailerako logotipoa aukeratzeko lehiaketa, 13 eta 15 urte artekoentzat. 400 euroko saria. Informazio gehiago, 943 654466 telefono zenbakian.

Mendi irteerak

- **Villabona.** Hilaren 16 eta 17rako, larunbata eta igandea, Lokiz mendilerroa eta Montejurrara irteera antolatuta du Aizkardi mendi elkar-teak Ollogoienen lo eginez (iganderako bakarrik ere joan daiteke autoz). Izen-ematea, elkarrean osategunetan 21:00etatik 22:00etara edo 649 717182 telefono zenbakian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan

Irati Irazusta (Anoeta). Gaur 8 urte. Zorionak aitatzu eta amaxoren partetik.



Urte askoan!

Mikel Otermin. Gaur 4 urte. Zorionak eta 4 muxu goxo etxekoan partetik.

Bretoieratik gertuago

Tolosa » Laskorain ikastolako DBHko ikasleek Bresteko ikastetxe batekin trukea burutu dute; «oso positiboa» izan da.

ERREDAKZIOA

Azken 5 urtetan bezala, aurtenean Laskorain Ikastolako DBHko ikasleek Bresteko Diwan-Lerelego ikastetxearekin trukea burutu dute. Proiektu honen helburua «hizkuntza bera lantzeaz gain, kultura eta ohitura desberdinak ezagutzea litzateke, hala nola elkarbizitza sustatzea», egonaldia familietan gauzatzen baita.

Bigarren Hezkuntza bretoieraz ematen duten bakarra

Hizkuntzari dagokionez, Diwan eskolak, euren lanean erakusten duten kalitatearengatik ez ezik, klaseak bretoieraz ematen dituztelako ere badira ezagunak eta beraien ibilbideak Ikastolen historiarekin antzekotasun handia du. Laskorain Ikastolarekin trukean ari den Brest-eko eskola bere inguruetan bretoieraz erakusten duen Bigarren Hezkuntzako eskola bakarra denez inguruko ikasleak hartzen ditu.

Oso baldintza ezkorretan ari dira hizkuntza garatzeko lanean: familietan ez da gurasoengandik seme-alabengana hizkuntza transmisiorik eman, baliabide gutxi dute euren hizkuntzan eta bertako gehiengoak ez du sinisten bretoierak frantsesaren edo beste edozein hizkuntzaren komunikazio balioa izan dezakeenik.

Hala ere, ilusio handiz eta itxaropentsu daude, burutzen ari di-



Ederki igaro dute Laskorain ikastolako DBHko ikasleek. HITZA

ren lanak hainbat aurrerapauso ekarri dituelako. Diwan eskola hauek bestalde, onespene handia dute baita, pedagogia mailako esperientzia berriengatik bai eta eskuratzen dituzten emaitza akademiko onengatik ere.

Martxoan, beraiek gurean

Martxoaren erdialdean bretoiak izan ziren gure artean, Euskal Herriko zenbait txoko ezagutuz. Gureak aldiz pasa den astean izan dira Britainian bertako bazterretaz gozatuz. Oraingoan ere, «esperientzia erabat positiboa izan da parte hartu duten guztientzat».

Kilometroak 09



Eguna: Maiatzaren 16an

Ordua: 16:30ean eta 19:30ean

Non: Donostiako Gaska kiroldegian (Anoetako EuskoTreneko geltokiaren atzean)

Sarrerak salgai: SERVIKUTXA, TELEKUTXA eta KUTXANETen 7€tan (egun berean, GASKA KIROLDEGIAN)

hirekin
MUNDURA
donostia Zurriola ikastola



LAGUN ARO